


Elkartea 52

INFORMAZIO ALDIZKARIA
2020ko Uztaila



COVID-19 ETA ESKUBIDEAK



ERAGINA **ETA** NEURRIAK

Gogoratu ...

ARABA

Simon Bolivar plaza, 9 beheha
Tel. eta Faxa: 945 225 516
01009 VITORIA-GASTEIZ
e-mail: info@eginez.org
www.eginez.org

GIPUZKOA

Ondarreta pasealekua, 5.ean
Tel.: 943 316 770 • Faxa: 943 316 379
20018 DONOSTIA
e-mail: elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org

BIZKAIA

Blas Otero, 63 beheha
Tel.: 94 405 36 66 • Faxa: 94 405 36 69
48014 BILBAO
e-mail: fekoor@fekoor.com
www.fekoor.com

%100ean birziklatutako paperean inprimatua

KONFEDERAZIOKO KIDE DIREN ELKARTEAK

ARABA

- **EGINAREN EGINEZ**
Arabako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarteak.

GIPUZKOA

- **AGAER**
Gaixotasun erreumatikoek erasandakoen Gipuzkoako elkarteak.
- **AGE**
Gipuzkoako epilepsiaren elkarteak.
- **AGI**
Gipuzkoako Ikusmen Urria Dutenen Elkarteak.
- **ANAIDIA**
Gutxitasuna duten pertsonetik kristau senidetasuna.
- **ASPARGI**
Gipuzkoako parkinson elkarteak.
- **BEGIRIS**
Gipuzkoako itsu edo ikusmen urritasuna duten pertsonen inklusioa sustatzeko elkarteak.
- **BIZI-BIDE**
Fibromialgia eta astenia kronikoaren Gipuzkoako elkarteak.
- **KOXKA**
Desgaitasunen bat duten Hernaniko elkarteak.
- **KEMEN**
Pertsona Ezinduen Kirol Kluba.
- **LEZDI**
Lezoko gutxituen elkarteak.

BIZKAIA

- **ACCU**
Bizkaiko Crohnen Eritasuna eta Ultzeradun Kolutisa duten Gaixoen Elkarteak.
- **ADELA**
Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Bizkaiko Elkarteak.
- **ADELES**
Bizkaiko Lupus Erimatoso Sistemikoa duten Gaixoen Elkarteak.
- **ADEMBI**
Bizkaiko Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteak.
- **ADISA**
Desgaitasuna duten Pertsonen Santurtziko Elkarteak.
- **AHEVA**
Bizkaiko hemofiliaren elkarteak.
- **ALCER**
Bizkaiko Giltzurruneko Gaixotasunen Aurkako Elkarteak.
- **ARGIA**
Bizkaiko Ostomizatuen Elkarteak.
- **ASEBI**
Asociación Bizkaia Elkarteak Espina Bifida e Hidrocefalia.
- **AVAH**
Bizkaiko Ataxia Hereditarioen Elkarteak.
- **BENE**
Bizkaiko Eritasun Neuromuskularren Elkarteak.
- **BIDARI**
Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Ermuko Elkarteak.
- **BIZKEL**
Bizkaiko Bizkarmuinaren Kaltetuak.
- **CODISFIBA**
Barakaldoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarteak.
- **EFELA**
Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Arratiako Elkarteak.
- **EMAN ESKUA**
Fibromialgia eta Neke Kronikoaren Bizkaiko Elkarteak.
- **ENEBIZIA ELKARTEA ZORROZA**
- **FRATER**
Elbarrituen eta Gaixoen Kristau Elkarteak.
- **LEVAR**
Artritis Reumatoidea duten Pertsonen Bizkaiko Elkarteak.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren diru-laguntzarekin egindako argitalpena. Elkarte hauekin harremanetan jarri nahi baduzu, jo ezazu zure lurraldeko koordinatzaileara.

AURKIBIDEA

DESGAITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONEN BEHARRAK ETA ESKAKIZUNAK COVID-19AREN KRISIALDI SANITARIO, SOZIAL ETA EKONOMIKOA DELA ETA	4
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------

KRISIALDI HONEK AGERIAN UTZI DITUEN BEHARRAK ETA GABEZIAK	5
----------------------------------------------------------------------------	----------

1 Bizimodu Independentearen eredu	5
2 Instituzionalizazioa eta bereizketa	9
3 Desgaitasuna duten pertsonen ikusezintasuna	9
4 Beren etxean bizi diren pertsonen beharrak	10
5 Familia-giroko zainketak	11
6 Diskriminazio-arriskua osasun-baliabideak eskuratzerakoan ...	12
7 Indarkeria-arrisku handiagoa desgaitasuna duten emakumeentzako	13
8 Hezkuntza inklusiboa	14
9 Enplegua	15
10 Gobernantza-eredua	18

ELKARTEAN-EK ESKATZEN DITUEN NEURRIAK	19
----------------------------------------------------	-----------

1 Bizimodu Independentearen eredu	19
2 Irisgarritasun unibertsala	20
3 Enplegu arrunta	20
4 Hezkuntza inklusiboa	21
5 Gizonen eskubide berberak eskuratu eta gauzatzea	22
6 Diskriminaziorik gabeko osasuna	23
7 Zeharkako proposamenak	23

DESGAITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONEN BEHARRAK ETA PROPOSAMENAK COVID 19AREN KRISIALDI SANITARIO, SOZIAL ETA EKONOMIKOA DELA ETA

COVID-19ak eragindako krisialdi sanitario, sozial eta ekonomikoak areagotu egiten ditu eguneroko bizitzan desgaitasun fisikoa dugun pertsonok ditugun zailtasunak, gabeziak eta desberdineriak. Gure bizitzako esparru guztietan are eragin handiagoa dute, ahal bada, krisialdi honen ondorioek, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioan aintzatetsitako gure eskubide guztien berme faltaren testuinguruan.

Zehazki, zenbait eremutan eragiten ditute, eta ELKARTEANek jarduera konprometituak aldarrikatzen ditu eremu horietan, eskubide hauek bermatzeko: non, nola eta norekin bizi nahi dugun erabakitze eskubidea (Bizimodu Independentea); lan-ingurune ireki, inklusibo eta irisgarri batean lan egiteko eskubidea (Enplegu arrunta); pertsona bakoitzaren beharrei erantzuneko dien hezkuntza-eskaintza eta -ingurunea izateko eskubidea (Hezkuntza inklusiboa); pertsona guztientzako ingurune, prozesu, ondasun, produktu eta zerbitzuez gozatzeko eskubidea (Irisgarritasun unibertsala); arreta sanitario eta sozio-sanitario eskuragarria eta kalitatezkoa izateko eskubidea (Osasuna); eta desgaitasuna duten emakume eta haurrek eskubide berdinak eta baztertuak ez izateko duten eskubidea (Emakumea).

Alarma eta konfinamendu egoerak agerian utzi ditu gure kolektiboak esparru horietan guztietan dituen beharrak, eta beharrezkoa da erabakigarritasunez erantzutea gure duintasuna eta eskubi-

deak defendatzeko. Eta larritasun eta premia bereziz egin behar da hori, krisialdi ekonomikoak eta prekarietateak datozen hilabete eta urte hauetan izango duten eraginari, eta pandemiaren ziurgabetasunari aurre egiteko; izan ere, une honetan, pandemiaren kontrolari, prebentzioari, tratamenduari eta osasunean izango dituen ondorioei buruzko galderak baino ez ditugu.

Horregatik guztiagatik, ELKARTE gure aldizkariaren ale hau monografikoa da, COVID-19aren krisialdi sanitario, sozial eta ekonomikoak desgaitasun fisikoa duten pertsonengan duen eraginari buruzkoa. Era berean, ELKARTEAN erakundeak instituzioetan eragin eta horiei gure aldarrikapenak helarazteko gauzatzen duen jardueraren bidez EAEn eta lurralde bakoitzeko erakundeetan egiten ditugun proposamen eta konponbideak aztertuko ditugu. Horretarako, administrazio publiko eskudunei jakinarazi dizkiegu (berriazko komunikazioen bidez eta ordezkaritza dugun foro eta parte-hartzeko guneetan, hala nola Elkarrizketa Zibilerako Mahaian), eta baita uztailaren 12an EAEn egin ziren hauteskundeetan parte hartu zuten alderdi politikoei ere.

Une honetan, are beharrezkoagoa da gure gizarteko pertsona eta kolektibo ahulenak ordezkatzeko ditugun erakundeak (ELKARTEAN, adibidez) parte-hartze eraginkorra, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Legean aldarrikatutako Gobernantza eta Elkarrizketa Zibileko Ereduarekin bat etorri.


KRISIALDI HONEK AGERIAN UTZI DITUEN BEHARRAK ETA GABEZIAK

**Asistentzialismoan eta
instituzionalizazioan oinarritutako
zaintza-ereduaren egoera larria eta
Bizimodu Independentearen Eredua.**

Azken urteotan, ez da aurrera egin desgaitasunen bat duten pertsonen “beren bizilekua, non eta norekin bizi nahi duten aukeratzeko” duten eskubidea bermatzeko baldintza eta laguntzen ziurtatze-lanetan, “gainerakoen baldintza berberetan, eta bizi-sistema espezifiko baten arabera bizitzera derrigortuak izan gabe” (Konbentzioaren 19. artikulua), Gizarte Zerbitzuen

Euskal Sistemako zerbitzu eta prestazioek asistentzialismoan eta instituzionalizazioan oinarritutako arreta- eta zaintza-ereduaren alde egiten jarraitu dute, Bizimodu Independentearen Eredua alde batera utzita.

ELKARTEANek Bizimodu Independentearen Eredua aldarrikatzen du –Konbentzioaren arabera gure eskubidea bermatzeko gai den bakarra–, eta eredu hori gure bizilekua hautatzeko, non, nola eta norekin bizi nahi dugun erabakitzeo aukera errealak ditugunean bakarrik gauzatu daiteke, instituzioetan edo bizimodu-sistema jakin baten arabera bizitzera behartuta ez gaudenean. Horretarako, komunitatetik isolatuta edo bananduta egotea ekidingo duten beharrezko baliabide eta laguntza egokiak erabiliko dira, gure partaidetza aktiboa bermatze aldera. Horretarako, beharrezkoa da baldintza hauek bermatzea:



Horiek horrela, gaur egungo krisialdiak agerian utzi ditu gabezia eta zailtasun handiak desgaitasun fisikoa duten pertsona askorentzat:

a) Laguntza pertsonala izateko zailtasunak izan dira.

Bereziki, laguntzaile pertsonal bat duten eta hura ordeztu beharra izan duten pertsonak ez dute baliabide ofizialik izan (laguntzaile pertsonalen poltsa) beste profesional bat aurkitzeko, eta baliabide informalak erabili behar izan dituzte, eta prestazioari uko egin behar izan diote laguntzaile pertsonalen profilar buruzko baldintzak ez betetzeagatik. Era berean, desgaitasuna duten pertsonak aldi baterako baja hartu behar izan dute laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoan; izan ere, komunitate-jardueretarako erabiltzen denez (igerilekura joatea, erosketak, aisialdia, ikastea, lan egitea, etab.), ez zaielako proposatu aldaketarik Arreta eskaintzeko Banakako Planean (ABP), Etxeko Arreta Zerbitzua edo familia giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa izapidetzeko, gehienetan familia ibili baita laguntza-behar horiek ematen. Azkenik, gabezia-egoerak izan dira laguntzaile pertsonalenzako eta artatutako pertsonentzako babes-ekipoen eskuragarritasunean.

b) Etxean bakartuta egoten dira (konfinamendu-neurri bereziekin edo gabe), haien etxebizitza ez baita irisgarria.

Bai konfinamenduan, bai konfinamendua arintzeko mailakako faseetan funtsezkotzat jotzen diren jarduerak egin ahal izateko. Konfinamendua beren errealitate iraunkor eta aldaezinaren parte delako, ezin direlako etxetik ate-

ra irisgarritasunik ez dutelako. Adibidez, igogailu irisgarririk ez izateagatik edo zero kotaraino iristeko arrapalak ez izateagatik, etxebizitzaren inguruko hirigintza-oztopoengatik, garraibide publikoetara iristeko bide irisgarririk ez izateagatik, bitarteko horiek irisgarritasunik ez izateagatik eta abar.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren Euskadiko Etxebizitzen Beharren eta Eskariaren Inkestaren arabera (2017), familia-etxean % 14,41ek etxebizitza-aldaketa behar du, irisgarritasun-gabeziagatik.

c) Etxean autonomia pertsonala izateko edo komunitatean modu aktiboan parte hartzeko behar dituzten laguntza-produktuak falta zaizkie. Konfinamendua arintzeko ondorengo faseetan jarduerak egiteko, paseatzeko, ariketa egiteko, lagunekin elkartzeko, eta abar.

Bereziki, ez da sarbide arin eta bermaturik izan produktu horiek konpontzeko, eta funtsezkoak dira haien duintasunerako, autonomiarako eta partaidetzarako.

d) Pertsona guztiek ez dituzte komunikatzeko egokitutako bitarteko eta baliabide teknologikoak, eta horrek arrakala digital eta ekonomikoak eragindako isolamendua ekarri du (bitarteko horien kostua eta egokitzapenak direla eta). Horixe gertatu zaie, alde batetik, instituzioetan dauden pertsonen, izan ere, ez dute beti wifirik izaten egoitzetan, edo ez dute behar adina baliabide eta laguntza kanpoaldearekin harremanetan egoteko; eta bestetik, beren etxeetan bizi arren, wifia eskuratzeko aukerarik ez duten pertsonen. Hori dela eta, erabat isolatuta geratzen dira eta ezin izaten dute parte hartu ordezk

aukera horien bidez. Hitzorduak edo laguntzak ere ezin izan dituzte eskatu, horien kudeaketa formatu digitalean egiten baita.

e) Ez dute gizarte-zerbitzuen eskaintza zabal eta askotarikorik bizimodu independentea garatzen laguntzeko eta desinstituzionaliziorantz igarotzeko.

Izan ere, egoitza-zentroak erabiltzen dituzten desgaitasun fisikoa duten pertsona batzuk, kutsatzeko beldurratik, etxera itzultzeko programak erabili nahi izan dituzte, baina ez dute eduki horretarako egokitutako baliabiderik eta laguntza-sarerik.

Baldintza eta baliabide egokiak eman behar dira, egoitza-baliabideetatik pertsonak bizi nahi duten leku edo espazioetara igarotzeko (beren bizilekua, bikotekidearekin bizitzea, lagunekin, senideekin bizitzea, etab.). Gune horiek irigarriak izan behar dute eta pertsonak behar dituen egokitzapenak izan

behar dituzte, laguntza pertsonalaz eta etxebizitzan eta komunitatean parte hartzeko beste zerbitzu eta laguntza batzuek gain. Konbentzioaren 19. artikulua administrazio publikoak behartzen ditu ziurtatzera *“desgaitasuna duten pertsonak eskura izan ditzatela etxeko laguntza-zerbitzuak, egoitzako laguntza-zerbitzu eta komunitateko beste laguntza-zerbitzu batzuk, euren bizitza errazteko eta komunitatean parte hartzeko behar den laguntza pertsonala barne, eta komunitatek isolatzea edo bereiztea saihesteko”*.

Egungo krisialdiak agerian uzten du hausnarketa sakon bati ekin behar zaiola eta aurrera egin behar dela desgaitasuna duen pertsona bakoitzak *“bere bizilekua eta non eta norekin bizi nahi duen aukeratzeko”* duen eskubidea gauzatu ahal izateko zerbitzuetan, baliabideetan eta prestazioetan, *“bizitza-sistema espezifiko baten arabera bizitzera”* behartuak izan gabe.



Egoitzetan krisialdiak izan duen eragina handia izan da eta adinekoen artean pertsona asko hil dira, eta arrisku handia dago egoitzako zaintza-eredu berri bati azaletik heltzeko, medikalizazio, zaintza eta osasun-kontrol handiagoa izango duena. Eredu horrek ez du zerikusirik desgaitasuna duten pertsonen Konbentzioaren harira behar dituzten laguntza-ereduekin: bizimodu independentera igarotzea eta desinstituzionalizazioa.

f) Desgaitasunaren gainkostua ez da jasotzen laguntza ekonomikoetan edo prestazioetan, esaterako, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan eta Bizitzeko gutxieneko diru-sarreran.

Desgaitasuna duten pertsonak desabantaila-egoeran daude gainerrako biztanleekiko: desgaitasunaren gainkostua, etxebizitza egokitu baten eta inguruan irisgarritasun-baldintzak dituen etxebizitza baten gainkostua, enplegu arrunta lortzeko zailtasunak... Faktore horiek zailtasun gehigarria dute, eta kontuan hartu behar dira pertsona guztiak berdin kokatzeko, bizimodu independentea garatzeko eta komunitatean parte har hartzeko ezinbestekoak diren gutxieneko diru-sarreraren ikuspegitik. Horregatik, beharrezkoa da erregulazio horiek (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta Euskadin eta Estatu osorako onartu berri dena, Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera - 20/2020 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 29koa, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera ezartzen duena) kontuan hartzea desgaitasuna duten pertsonen errealitatea. Batez ere, nahikoa diru-sarrera bermatzeaz gain, gizarteratzeko ibilbideak erraztu nahi dituzten prestazioak direlako.



Hori dela eta, beharrezkoa litzateke, halaber, prestazio horiek egoitza-zerbitzuekin bateragarriak izatea, hain zuzen ere, egoera horretan dauden desgaitasuna duten pertsonen bizimodu independenterako eta gizarteratzeko benetako ibilbideak ahalbidetzeko.

Azkenik, DSBERi buruzko araudia hobetzeko prozesuan, ELKARTEA-Nek euskal erakunde publikoei helarazitako dokumentuetan eta txostenetan aldarrikatu duen bezala, pentsioen titularrek bizikidetzaren unitate independentea eratzeko aukerari eutsi behar zaio. Horri esker, bereziki pentsioen titular diren desgaitasuna duten pertsonen, kotizazio gabeko pentsioen titularrek batez ere, DSBE jasotzeko aukera izango lukete, senideekin bizi arren. Bereziki mendekotasuna izateak eta bizi-eredu independentea diseinatzeko eta garatzeko baliabide nahikorik ez izateak eragiten du egoera hori.

Euskadin Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren aplikazio bateratua planteatzerakoan alderdi horiek guztiak kontuan hartu beharko lirateke.

2

Egiaztatuta geratu da egoitza-eredua baliabide bereizlea dela, desgaitasuna duten pertsonen beren bizitzari buruzko erabakiak hartzea eragozten baitie.

Eredu bereizle baten esparruan instituzionalizatuta dauden pertsonen beren bizitzari buruz erabakitzeak askatasunik ez dutela agerian geratu da. Adibidez, komunitatean jarduera berriak egiteko konfinamenduen arintze-faseetan aurrera egin duten gainerako herritarrek ez bezala, instituzio-eremuan zeudenek ezin izan dituzte jarduera horiek egin. Gainerakoek ez bezala, irteerarako ordutegi-mugak izan dituzte, ezin izan dira bakarrik atera. Konfinamendua gela batean igaro dute, ez etxebizitza batean –sarritan, gainera, gela partekatuan–. Zentroetako konfinamenduen arintze-prozesuari buruzko informaziorik ez da egon, batzuetan ez dute izan beharrezko gailu teknologikorik kanpoaldearekin kontaktu egokia izateko.

Ezinbestekoa da egoitza-ereduaren eraldaketari sakonki heltzea, Bizimodu independentearen Ereduarekin bat datorren ikuspegia kontuan hartuta. Arreta-ereduaren arrakasta ez da kutsatutako pertsonen kopuruaren arabera bakarrik neurtzen, baizik eta Konbentzioarekin duen koherentziaren arabera, pertsonen aukera ematen baitie bizi-hautuak egiteko eta komunitatean parte hartzeko.

Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak arautu gabe dagoen gaia denez, egungo egoerak areagotu egin du segurtasun juridikorik eza, eta erraztu egin ditu informaziorik eza, erabakiak hartzea ukatzea eta gainerako biztanleekiko isolamendua eta diskriminazioa.

3

Beren etxeetan bizi diren desgaitasun fisikoa duten pertsonen beharrak ikusezin bihurtu dira.

Desgaitasun fisikoa duten pertsona gehienak beren etxeetan bizi diren arren, laguntza- eta prestazio-sistemak ez ditu haien beharrak hautematen eta ez du beharren jarraipenik egiten. Gainera, ez ditu prestazioak eta baliabideak egoera berrira egokitzen. Beharrezkoa da eskuragarri dauden zerbitzuak eta prestazioak egokitzea, isolatzeko, bakarrik egoteko eta/edo arretarik ez izateko arriskuak saihesteko, eta bizi-zeko aukeratzen duten lekuan geratzea eta autonomia pertsonala sustatu behar dira. Besteak beste, honako hauek hauteman dira:


a) Administrazioak ez du pertsona horien egoeraren eta beharren jarraipenik egin.

Gizarte-zerbitzuek lehentasuna eman diote, gutxienez krisialdiaren hasierako fasean, adinekoekin kontaktu aktiboa izateari; aldiz, desgaitasun fisikoa duten eta/edo mendekotasuna duten 65 urtetik beherako pertsona gutxi jaso dute dei bat beren egoeraz eta premiez galdetzeko.

Izan ere, kolektiboaren beharren jarraipena eta detekzioa, oro har, Elkartean elkartarekin lotutako gizarte-erakundeek egin dute, dagozkien lurraldeetan: eginaren eginez, elkartu eta fekoor.

b) Desgaitasunaren aldagairik ez da egon krisialdiaren eragina aztertzerakoan.

Ohikoa den bezala, ez da desgaitasunaren aldagaia txertatzen ari krisialdi honen desgaitasuna duten pertsonengan eta haien familietan duen eraginaren



azterketan, ez eta hurrengo konfinamenduaren arintze-faseetan eta datozen hilabeteetan biziko dugun krisialdi ekonomikoaren testuinguruan ere.

Krisialdiak agerian uzten ditu kolektiboak aspaldidanik salatzen dituen zailtasun eta gabezia berberak, bizimodu independenterako eta aukera-berdintasunerako baldintza-bermerik ezarekin lotutakoak. Eta hori NBEk berak salatu duen arren desgaitasuna duten pertsonak direla pandemia gehien pairatu dutenak¹.

c) Desgaitasuna duten pertsonen buruzko erabakiak hartzerakoan, ez dira kontuan hartu pertsona horiek edo pertsona horiek ordezkatzeko dituzten erakundeak.

Erakunde horietatik helarazitako proposamenak ere ez dira kontuan hartu. Horrek gobernantza-ereduaren porrota eta desgaitasuna duten pertsonen ikusezintasuna dakar.

Desgaitasun fisikoa duten eta beren etxeetan bizi diren pertsonen erantzunak egokitu eta gehitzeko beharra.

Besteak beste, honako hauek hauteman dira:

a) Etxeko laguntza-zerbitzuak egokitzeko beharra.

Bereziki, Etxeko Laguntza Zerbitzuaren arreta-orduak gehitzeko eta laguntza-jarduerak dibertsifikatzeko beharra.

Gainera, sarritan, garbiketarako bakkariak ziren etxeko laguntzak eten egin

dira, eta horrek zailtasun gehigarriak ekarri dizkie laguntza hori behar duten desgaitasuna duten pertsonen.

Era berean, gabeziak izan dira segurtasun- eta babes-ekipamenduetan, eta horrek arriskua ekarri du desgaitasuna duten erabiltzaileentzat eta zerbitzu hori ematen duten langileentzat. Zenbaitetan, horren ondorioz, desgaitasuna duten pertsonen zerbitzuari uko egin die, kutsatzeko beldurreratik.

b) Estalduran ez da desgaitasunik egon, ezta prestazioen arteko batezgarritasunik ere.

Adibidez, krisialdian itxita egoteagatik eguneko arreta-baliabideetara (eguneko zentroak edo okupazio-zentroak) joaterik izan ez duten desgaitasuna duten pertsonen kasuan, denbora horretan ez da aurreikusitako familia giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa haren zenbatekoaren % 100era arte gehitzea.

Era berean, baliabide horiek erabiltzen dituzten pertsonen kasuan, kutsatzeko beldurreratik, nahiago dute ez erabili berriro ere abian jartzen direnean. Gehienetan, familiei desgaitasuna duten pertsonak zaintzen laguntzen dieten baliabideak dira, eta lana eta familia bateratzen laguntzen dute.

Kontuan izan behar da familia giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa dela bizileku partikularrean bizi direnen baliabide nagusia.

c) Desgaitasun- eta mendekotasun-balorazioak eten dira.

Konfinamenduaren hilabeterik gogorrenetan, balorazioak eten egin ziren (desgaitasuna eta mendekotasuna), eta horrek beharrezko prestazioak eskura-

¹ <https://www.efe.com/efe/espana/sociedad/la-onu-denuncia-que-los-discapacitados-son-mas-afectados-por-pandemia/10004-4239107>

tzeko eta/edo aldaketak egiteko ezintasuna eragin zuen. Edo, hala badagokio, zerbitzu edo prestazio horiek premia eskuratzeko beste bide batzuk ezarri beharko ziratekeen.

Era berean, ikusi da desgaitasun-ziurtagirien berrikuspenak luzatu baino ez direla egin lehengo baldintza berberei eutsiz, eta hori desgaitasuna duten pertsonen kalterako izan daiteke, ziurtagiria beharrezkoa baita baliabide eta pensio asko eskuratzeko.

d) Mantentze-ariketetarako eta/edo errehabilitaziorako beharrezkoak diren tratamendu espezializatuak eten eta atzeratu dira.

Osasun-egoerari eta jardunari eusteko tratamendua behar duten desgaitasuna duten pertsonentzat, arreta-zentroak ixteak eta desgaitasuna duten pertsonen kontsultak eta tratamenduak bertan behera uzteak narriatzeko arrisku goiztiarra dakar, eta hori arintzea eta/edo saihestea beharrezkoa da.

Martxan eta programatuta zeuden errehabilitazio-tratamenduak, alarma-egoeran eten direnak, alarma-egoera igaro ondoren behin betiko bertan behera geratu dira, berriro hasi beharrean.

e) Eremu emozionalean laguntza-eskaera handitu egin da.

Ikusten da behar emozionalak areagotu egin direla krisialdiaren eraginaren ondorioz: kutsatzeko beldurra, etorkizunaren inguruko ziurgabetasuna, bakartze-egoeren eta gertuko laguntza-harremanen galera, etxetik irten ezin izatea, desgaitasuna duen pertsona nahiz senitartekoak lanik gabe geratzea, izandako zailtasun ekonomikoak, eta abar.

Administrazioak ez die behar horiei erantzunik eman. Laguntza eta jarraipena funtsezkoak dira, alarma-egoerak zaurgarritasuna handitu baitu. Zeregin hori gizarte-erakundeei soilik egokitu zaie nagusiki.

5

Familiak bakarrik sostengatzen duen laguntza-eredu baterantz atzera egin da.

Familia da Covid-19ak eragindako krisialdi sanitario eta sozialean desgaitasun fisikoa duten eta/edo mendekotasuna duten pertsonen arretaren protagonismoa eta erantzukizuna bere gain hartzen ari den erakundea.

Hori gertatzen da, azken urteetan, familiako zaintzaileen aurkakoak izan diren neurri ugari hartu badira ere. Hala nola: prestazio ekonomikoa jasotzeko baldintza gisa alde zuzeneko prestakuntza eskatzea, diru-kopurua murriztea, zaintzailea desgaitasuna eta/edo mendekotasuna duen pertsona ez izatea eskatzea, prestazioa jasotzeari lotutako jarraipena ezartzea, eta abar.

Eremu horretan, honako hauek hauteman dira:

- Familien gehiegizko ahalegina, haien gain utzi baita beharrei erantzutea (batzuetan, etxean geratu direlako erantzun diete behar horiei: telelana, ABEEE, langabezia...).
- Egoera horietan desgaitasuna duten edo mendekotasuna duten pertsonen mendekotasuna duten senitartekoak zaintzeko ardura beren gain hartu dute.
- Senideak gaixo badaude, horrek zailtasunak dakartza mendekotasuna duen

pertsonari arreta emateko, eta ez dute aukerarik egoitzetan aldi baterako lekua eskuratzeko, egoera horiei konponbidea emate aldera.

Horiek horrela, agerian geratzen da familiarako zaintza informalaren katea hausteko arriskua, gerta litezkeen kutsatzeen ondorioz. Hortaz, zalantzaragarria da mendekotasun-egoerei erantzuteko behar diren baliabide formalak ote dauden.

Bestalde, kontuan hartu behar da, baita ere, pandemiak eragindako egoera dela eta, etxeetan geratu behar izan duten zaintzaileen egoera, desgaitasuna duten euren mendeko senitartekoak zaintzeko². Izan ere, 8/2020 Errege Lege Dekretuak arautzen du langileek lanaldia egokitzeko eta/edo murrizteko duten eskubidea, senideekiko zaintza-betebeharrak egiaztatzen badituzte. Horretarako eskatzen diren salbuespeneko egoeren artean, berariaz aipatzen dira honako hauek: batetik, desgaitasuna dela eta senidea artatzeko langilea egon behar izatea; bestetik, covid-19arekin zerikusia duten gobernu-agintarien erabakiak egon behar izatea, baldin eta erabaki horiek berekin badakarte zaintza behar duen pertsona zaintzen edo artatzen duten zentroak ixtea, eta orain arte senidea zaintzeko edo zuzenean laguntzeko ardura izan duen pertsonak zaintzen jarraitu ezin izatea. Bereziki, soldata murriztu egienez lan egiteari utzitako denboraren proportzioan, egoera horrek eragin kaltegarria izan dezake haien kotizazioetan eta, ondorioz, zaintzaileen gizarte-babesaren mailan.

Osasun-baliabideak eskuratzeko diskriminazio-arriskua, desgaitasuna dela eta.

Osasun-arloko erakundeek eta profesionalak giza eskubideen eta eskubide etikoen arabera jokatu behar dute, ez dute bereizkeriarik egin behar, ez dute tratu desberdina eman behar eta aurreiritzirik gabe jardun behar dute. Hortaz, euren jardunean ez dute joerarik izan behar “desberdintzat” jotzen diren bizitzak zigortzeko, balio txikiagokoak eta sakrifikatzeko modukoak (lehenetasun gutxiago dutelako) direla iriztita.

CERMIk ohartarazi duen bezala³, ezin da mezu hau ematerik onartu: desgaitasuna duten pertsonak baztergarriak direla, objektuak direla eta ez eskubideen subjektuak. Ezin da inor sakrifikatu bizitzaren ustezko eraginkortasunagatik.

Desgaitasuna duten pertsonen eskubidea dute “*ahalik eta osasun-mailarik onena izateko, desgaitasun-arrazoiek eragindako diskriminaziorik gabe*”, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren 25. artikuluan xedatzen denaren arabera. Era berean, eskuagarri dauden osasun-arretarako baliabide eta gailu guztiak eskura izatea bermatu behar da, irisgarritasun unibertsaleko baldintzetan eta gainerako biztanleen aukera berdintasunetan.

Krisialdiaren eta laguntza- eta osasun-baliabideen mugaketaren aurrean (edo gaixoberritze gehiago baldin badago), beharrezkoa da osasun-zerbitzuek irizpide gardenak dituzten protokolo argiak izatea, pertsona bakoitzaren duintasuna eta balioa lehenesteko, beste edozein irizpideren gainetik. Bereziki, asistentziaren lehenetasuna zehazteko gizarte-onurako edo gaitortasuneko beste edozein irizpideren gainetik, baldin eta beste irizpide horiek diskriminazioa eragin badezakete desgaitasunaga-

² <https://www.deia.eus/opinion/tribuna-abiarta/2020/05/29/personas-discapacidad-familiares-covid-19/1041870.html>

³ CERMI. “Las personas con discapacidad y sus familias ante la crisis sanitaria del coronavirus: prontuario de necesidades en la gestión inmediata de la pandemia”.

tik, adinagatik, osasun-baldintzagatik edo gaixotasun edo patologia kronikoengatik.

Gizaki ororen duintasuna ezin daiteke urratu, eta pertsona guztiok eskubide berberak ditugu; horregatik, ezin da inolako bereizkeriarik egin desgaitasunagatik edo beste edozein arrazoi edo egoerarengatik. Gaizki ulertutako gizarte-onurako printzipioan eta desgaitasuna duten pertsonen duintasuna eta balioa ukatzeko printzipioan oinarrituta jardutea bioetikaren oinarritzko printzipioen aurkakoa da, Espainiako Bioetika Batzordeak eta kolektibo horren eskubideak ordezkatzen eta defendatzen dituzten erakundeek (ELKARTEAN, esaterako) gogorazten duten bezala.

Osasun-arreta behar duten desgaitasuna duten pertsonak ezin dira inola ere baztertu edo bigarren mailako bihurtu osasunaren eta gizarte-zaintzan.

7 Indarkeria-arrisku handiagoa desgaitasuna duten emakumeentzako.

Genero-indarkeriak emakumeengan dituen ondorioak areagotu egin dira konfinamenduan. Izan ere, genero indarkeriaren biktimak artatzeko telefonoaren bidez jasotako deien kopurua, 016 telefono-zenbakian, % 12,43 igo zen konfinamendu garaian, iazko martxoaren 14tik 29ra bitartean artatutakoekin alderatuz gero; 374 dei gehiago jaso ziren. Alarma-egoerak eragindako isolamenduaren hamabostaldia otsailaren 14tik 29ra bitarteko aldiarekin (justu aurreko hilean) alderatzen bada, igoera % 18,21ekoa da, hau da, 521 dei gehiago⁴.

Bestalde, pandemiak iraun duen bitartean, Euskadin indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei harrera egiteko baliabideek 25 emakume hartu dituzte, eta haien

ardurapean zeuden 10 adingabe. Zifra horiek iazko epe berean lortutakoak baino pixka bat txikiagoak dira; izan ere, iaz, 33 emakumek eta haien 36 seme-alabek harrera-baliabide bat eskatu zuten etxean jasaten zuten genero-indarkeriaren ondorioz. Gainera, Emakunderen datuen arabera, Euskadin indarkeria matxistagatik jarritako salaketen kopurua erdira jaitsi da iazko epe berarekin alderatuta. Guztira, 163 salaketa izan dira martxoaren 14tik apirilaren 10era bitartean. Hori gertatzeko arrazoiaren artean, honako hauek nabarmentzen dira: erasotzailearekin bizi bitartean salatzen zailtasunak eta beldurra, konfinamendu-garaian gizartearen kontrola eta bizilagunaren hurbiltasuna, eta egin ohi diren salaketa askotan erasotzailea bikotekide ohia izatea, eta une horretan elkarrekin bizi ez izatea⁵. Pandemiak, beraz, zaildu egin die genero-indarkeriaren biktimei Euskadin harrera egiteko baliabideak eskatzea eta salaketak jartzea.

Egoera are larriagoa da desgaitasuna duten emakumeentzako, arrisku handiagoa baitute. Europako Parlamentuaren arabera, desgaitasuna duten emakumeen ia % 80 indarkeriaren biktima da, eta gainerako

⁵ https://www.eldiario.es/norte/Caen-solicitudes-maltratadas-Euskadi-pandemia_0_1031697135.html

⁴ <https://www.deia.eus/actualidad/sociedad/2020/04/02/suben-llamadas-violencia-machista/1028817.html>



emakumeek baino lau aldiz arrisku handiagoa du sexu-indarkeria jasateko.

CERMIren arabera, begi bistakoa da, beraz, krisi-egoera bereziek oro har emakumeen aurkako, eta, bereziki, desgaitasuna duten emakumeen eta nesken aurkako indarkeria-arriskua areagotzen dutela; beraz, xede-populazioa izan behar du indarkeriaren eta abusuen aurkako estrategia guztietan.

Era berean, bereziki garrantzitsua da egoera horietan emakumeontzat eskuragarri dauden baliabideei buruzko informazio guztia ematea.

ELKARTEANek, lurraldeetan dituen erakunde bidez (eginaren eginez, elkartu eta fekoor), informazio-liburuxka hau egin eta zabaldu du desgaitasun fisikoa duten emakumeentzat:



8

Hezkuntza inklusiboa eskuratzeko zailtasun gehiago.

Konfinamendu-egoerak, irakaskuntza baliabide digitalen eta telematikoen bidez berrantolatu duenez, irakaskuntza-maila guztietako ikasle askok aldi horretan ezin izan du hezkuntzarako sarbiderik izan.

Krisialdiak arriskuan jarri du hezkuntza-izaera inklusiboa: haur askok baliabide osagarriak jasotzen dituzte (logopedia, fisioterapia, etab.), baliabide akademikoekin batera, baina ez zaizkie baliabide osagarri horiek eskaini. Era berean, eduki akademikoak, sistema digitalerako sarbidean erakutsitako zailtasunez gain, modu “bereizian” eman dira, gainerako ikasleekin espazio partekatuetan bilatu gabe.

Bestalde, familia askok arrazoi ekonomikoengatik ere izan dute sarbidea mugatuta, beharrezko baliabide teknologikoak eskuratzeko baliabide nahikorik ez dutelako. UNICEFek emandako datuen arabera⁶, Espainian, familien diru-sarrerara txikiaren tartean (hilean 900 euro garbi edo gutxiago), haurrak dituzten etxeen % 9,2k ez du Internetarako sarbiderik, eta horrek esan nahi du 100.000 etxe inguruk ezin dutela sarera konektatu.

Desgaitasuna duten pertsonen, arrazoi ekonomikoengatik arrakala digital horri aurre egiteaz gain, irisgarritasunaren oztopo ere jasaten dute, eta zailtasun handiagoak dituzte gailu horiek eskuratzeko, behar dituzten egokitzapenak direla eta, are gehiago handitzen baitute baldintza telematiko horietan hezkuntza inklusiboa izateko behar diren tresnen kostua.

Hori guztia, kontuan hartu gabe desgaitasunen bat izateagatik, gainerako ikasleen

6 <https://www.unicef.es/educa/blog/covid-19-brecha-educativa>



aukera-berdintasunean ikasteko aldi horretan behar dituzten beste hezkuntza-laguntza edo -sendogarri batzuen gabezia.

Desgaitasuna duten pertsonak irakaskuntzako formatu digitaletatik baztertuta gera ez daitezten (beti edo une jakin batzuetan) irtenbide eta laguntza zehatzei ekiteko beharra bat dator ELKARTEANen aldarrikapenekin, desgaitasun fisikoa duten ikasleek hezkuntza inklusiborako duten eskubidea bermatzeko, Konbentzioaren baldintzetan, honako hauek ziurtatzeko:

- Behar dituzten hezkuntza-laguntza eta -sendogarri guztiak izatea.
- Orientabide egokia edukitzea, mugak ezartzen ez dituen, baizik eta pertsona bakoitzaren nortasuna, ahalmenak eta gaitasunak ahalik eta gehien garatzen laguntzen duena, banakako beharrei eta etorkizunerako itzaropenei erantzunez, enplegu babestuko aukera, espazio edo ibilbide bereizle eta ez-inklusiboetarako berariazko orientabide diskriminatzailearik gabe.
- Ikastetxe, espazio eta gailu guztiak irisgarriak izatea, pertsona guztiak erabili ahal izateko, bereizketarik gabe.
- Desgaitasuna duten pertsonentzako lan-garapenarekin lotura bermatzea, prestakuntza-ingurune ireki, inklusibo eta irisgarrietan.
- Beken eta laguntzen sistemak kontuan hartzea desgaitasunaren gainkostua eta pertsonen aukera askea.

9 **Krisialdi ekonomikoak enpresa arruntetan izan duen eragin berezia enplegua lortzeko eta enplegu horri eusteko.**

Azken urteotan Eusko Jaurlaritzak enplegu babestuaren eta enplegu-zentro berezien jardura hartu du soilik kontuan gure kolektiboarentzat enplegua sortzeko lehentasunezko aukeratzat; eta orain, desgaitasuna duten pertsonen enplegua lortzeko eta horri eusteko izan duten desberdinkeria-egoera are larriagoa bihurtu da COVID-19ak eragindako krisialdi ekonomiko eta sozialaren egungo egoeran; horrek ondorio zuzenak ditu lan-merkatuan.

Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) arabera⁷, pandemiak eragindako krisialdi ekonomikoak 195 milioi lanpostu suntsituko ditu mundu osoan bigarren hiruhilekoan, eta 2008-2009ko finantza-krisialdian jasandako kalteak gaindituko dira. Hauek dira egokitzapen gehien jasateko arrisku handiena duten sektoreak: ostalaritza eta jatetxe-arloa, manufaktura-industria, txikizkako merkataritza eta enpresa- eta administrazio-jarduerak.

Espanian, 2020ko lehen hiruhilekoko Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera⁸, lehen hiruhilekoan 285.600 pertsona gehiago daude lanik gabe (kopuru horretan ez dira sartzen enplegua etenda duten aldi baterako enplegu-erregulazioak eragindako pertsonak), eta 121.000 pertsona gehiago daude langabezian (% 14,41eko tasa). Gainera, eskaera- eta jardura-faltaren ondorioz, orain aldi baterako enplegu-erregulazioak babestutako langileen % 25ek enplegua gal dezake 2021ean, eta ez luke galdutako enplegua 2026ra arte

⁷ <https://www.ilo.org/global/topics/coronavirus/lang-es/index.htm>

⁸ <https://www.ine.es/daco/daco42/daco4211/epa0120.pdf>

berreskuratuko (ManpowerGroup indizea, 2020ko maiatza⁹). Horrek guztiak, gainera, eragin berezia du emakumeengan: UGTk egindako azterketa batek¹⁰ agerian uzten duenez, funtsezko zerbitzuak biltzen dituzten sektoreetan izango du eragin handiena osasun-krisialdiak, ekonomiari eta enpleguari dagokienez, hain zuzen ere, sektore prekarizatuenetan eta feminizatuenetan.

Une honetan, desgaitasuna duten pertsonen enpleguari buruzko kezkarik handiena enplegua eskuratzea eta enplegu horri eustea da, bai pandemia garaian, bai hura gainditu ondoren¹¹. Are gehiago kontuan hartuta desgaitasuna duten pertsonen tzako enpresa arruntetako lanpostuen % 2ko erreserba-kuota (1/2013 ELD, azaroaren 29koa, desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena, 42. artikulua) ez zaiela aplikatzen, ez 50 langile baino gutxiago dituzten enpresei (gehienak enpresa-sarekoak), ez kooperatibei, haien politikak, arlo horretan ere, autoerregulaziorako eta autogestiorako gaitasunaren barruan geratzen direlako. Hala eta guztiz ere, ez dago erreserba-kuota nola errespetatu behar den jasotzen duen araurik, edo, hala badagokio, ordezko neurririk, aldi baterako enplegu-erregulazioa gertatzen denean lan-kontratua nori eteten zaion edo lanaldia nori murrizten zaion zehazteko, baldin eta enpresak ez badu erabateko etetea aukeratzen. Gauza bera gertatzen da 18/2020 Errege Lege Dekretuan ezarritako desafezio-baldintzekin, adibidez, orain, ezinbesteko arrazoiengatik partzialki ezarritako aldi baterako enplegu-erregulazioak ere

9 <http://www.manpowergroup.es/La-crisis-sanitaria-del-COVID-19-supondra-una-decada-de-empleo-perdido-para-Espana>

10 <https://www.ugt.es/el-impacto-economico-de-la-covid-19-golpea-el-empleo-de-la-mujer>

11 <https://www.deia.eus/opinion/tribuna-abierta/2020/05/29/personas-discapacidad-familiares-covid-19/1041870.html>

badaude, aldi baterako enplegu-erregulazioak eragindako langileak pixkanaka berriz lanean hasi ahal izateko, baina desafezio horretarako eta berriz laneratzeko irizpideak ez dira arautzen desgaitasuna duten pertsonen lanpostuetarako.

Egoera horretan, LANEk berak¹² ikusi du COVID-19ak desgaitasuna duten pertsonengan duen eraginak larriagotzen dituen desberdinkeriak ez direla berriak. Egungo krisialdiari erantzuteak dakarren arriskua da desgaitasuna duten pertsonak berriz ere atzean geratzea. Hori ez gertatzeko, funtsezkoa da lanaren nazioarteko arauak eta giza eskubideen beste tresna batzuk aplikatzea, zehazki, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa.

Izan ere, 2018an, desgaitasuna duten pertsonen jarduera-tasa 43,1 puntu txikiagoa zen desgaitasunik ez duten pertsonena baino, eta langabezia-tasa 10,1 puntu handiagoa zen¹³ (Desgaitasuna duten Pertsonen Enpleguari buruzko Estatistikako Institutu Nazionalaren datuen arabera). Desberdinkeria berezia dago, halaber, desgaitasuna duten emakumeen artean, jarduera-tasa % 33,6koa baita, eta desgaitasuna duten gizonena, berriz, % 35,1koa.

EAEan, desgaitasuna duten pertsonen jarduera-tasa Estatuko batez bestekoa baino zertxobait handiagoa da (% 34,9 eta % 34,5, hurrenez hurren), eta Euskadik apustu berezia egin du enplegu babestuen alde. Enplegu mota horrek ez ditu bermatzen administrazio publikoek gure kolektiboari ziurtatu behar dizkioten enplegu-baldintzak. “Irekiak, inklusiboak eta irisgarriak diren lan-inguru eta lan-merkatu batean askatasunez hautatua edo onartua”.

12 https://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---ed_emp/---ifp_skills/documents/publication/wcms_741305.pdf

13 https://www.ine.es/prensa/epd_2018.pdf

Izan ere, Eusko Jaurlaritzak 2020an desgaitasuna duten pertsonen enplegu babesturako laguntzak finantzatzera bideratutako baliabideak –aurreko urteetan enplegu arruntean laneratzera bideratutakoak baino askoz handiagoak– erregulazio berriarekin (urriaren 29ko 168/2019 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta enplegu zentro berezien Euskal Erregistroa arautzen dituen) % 47 igo dira aurreko urteekin alderatuta (55.600.000,00 eurokoa izan da). Enplegu arruntean laneratzeko laguntza, aldiz, 700.000,00 eurokoa izan da (partida ekonomiko horrek ez du igoyerarik izan aurreko urteekin alderatuta).

Hau da: Eusko Jaurlaritzak enplegu babestua bultzatzera bideratutako baliabideak enplegu arruntean laneratzeko laguntzera bideratutakoak baino 80 aldiz handiagoak dira. Gainera, kontuan hartu behar da enplegu arrunta bultzatzera behartzen duela Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak.

Taula – Eusko Jaurlaritzak desgaitasuna duten pertsonentzako enplegurako laguntzak finantzatzera bideratutako baliabideen konparazioa (2019-2020)

		2019. urtea	2020. urtea
EZB	EZBetako laguntza-unitateak ¹⁴	4.200.000,00 euro	5.000.000,00 euro
	EZBetan enpleguari eustea ¹⁵	33.700.000,00 euro	50.600.000,00 euro
Enplegu arrunta ¹⁶		700.000,00 euro	700.000,00 euro

Enplegu babesturako laguntzen lehentasunezko zuzkidura hori eta enplegu arruntaren laguntzarekin duen alde handia bat datoz urriaren 29ko 168/2019 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin lotutako programak eta zerbitzuak eta enplegu-zentro berezien Euskal Erregistroa arautzen dituen) jasotako neurrien desorekarekin.

14 EBAZPENA, 2018ko abenduaren 18koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoan enplegu-zentro berezietako lanbide-jarduerari laguntzeko unitateak 2019ko ekitaldian finantzatzeko laguntzen deialdia.

EBAZPENA, 2020ko otsailaren 26koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita enplegu-zentro berezietako lanbide-jarduerari laguntzeko unitateak 2020ko ekitaldian finantzatzeko laguntzen deialdia, urriaren 29ko 168/2019 Dekretuan aurreikusitakoari jarraituz. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasunen bat duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzen dira.

15 EBAZPENA, 2019ko otsailaren 28koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak hartutako erabaki bat argitara emateko dena. Erabaki horren bitartez, diru-baliabideak esleitzen dira Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren 1998ko urriaren 16ko Aginduan aurreikusitako laguntzak 2019ko ekitaldian finantzatzeko. Agindu horren bidez, hain zuzen ere, desgaitasuna duten pertsonak enplegu-zentro berezietan laneratzeko laguntza eta dirulaguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dira.

EBAZPENA, 2020ko otsailaren 26koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak hartutako erabaki bat argitara emateko dena. Erabaki horren bitartez, diru-baliabideak esleitzen dira 2020 urtean desgaitasuna duten pertsonak enplegu-zentro berezietan laneratzeko laguntzak finantzatzeko, urriaren 29ko 168/2019 Dekretuan aurreikusitakoari jarraituz. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasunen bat duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta enplegu zentro berezien Euskal Erregistroa arautzen dira.

16 <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/albistea/2019/700-000-euro-bideratuko-dira-lan-merkatu-arruntean-desgaitasuna-duten-pertsonen-enplegua-sustatzeko-laguntzetara-gobernu-bilera-2019-02-26/>

EBAZPENA, 2020ko martxoaren 4koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erabakia, ballabide ekonomikoak bideratzeko desgaitasunak dituzten pertsonen enplegua lan-merkatu arruntean sustatzeko laguntzak finantzatzeko 2020an. Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasunen bat duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa arautzeko urriaren 29ko 168/2019 Dekretuan aurreikusi ziren laguntzak.

Gobernantza ereduaren porrota desgaitasuna duten pertsonen esparruan.

ELKARTEANen egiaztatu dugunaren arabera, ez autonomia-erkidegoan, ez lurralde historikoetan ez dira aintzakotzat hartu desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzeko dituzten erakundeak (Elkartean, esaterako) krisialdi honetan burututako jarduketan. Batzuetan, erantzukizun publikoko zerbitzuak kudeatzen dituzten erakundeak bakarrik hartu dira aintzat (eguneko zentroak, egoitzak) kudeaketarekin zerikusia duten gai zehatzetarako (ez kolektiboaren beharrekin zerikusia duten gaietarako). Ez da kolektiboa kontuan hartu egoera zein den jakiteko, ez planifikatzeko, ez jarduketak abian jartzeko. Ez da erantzunik jaso jarduketak proposatzeko eta lankidetzak eskaintzeko bidalitako idazkiei buruz. Onartu diren arau-ekimenetan ere ezin izan dute parte hartu.

Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioko 29.b) artikulua arabera, bermatu egin behar da *“desgaitasuna duten pertsonak gai publikoen zuzendaritzan bete-betean eta eraginkortasunez parte hartu ahal izango duten ingurune bat, bereizkeriarik gabe eta gainerako baldintza berberetan, bai eta gai publikoetan parte har dezaten sustatu ere”*. Besteak beste, ordezkatzeko dituzten erakundeen bidez.

Bestalde, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak, besteak beste, Elkarrizketa Zibila-ren eta demokrazia partizipatiboaren printzipioa aintzatesten du (6.d. art.). Horren arabera: *“Euskal administrazio publikoek Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeek eta sareek bermatuko diete Administrazioaren jardun-esparru guztietan*

beren iritzia publikoki elkarri adierazteko eskubidea, eta erakunde eta sare horiekin elkarrizketa irekia, gardena eta ohikoa izango dute politika sozialen gainean; horretarako, elkarrizketa zibileko mahaiak abiaraziko dituzte, eta kontsulta-organoe-tan edo horretarako abiarazitako prozesu espezifikoetan parte hartuko dute”.

Zehazki, 7.1 artikulua honako hau xedatzen du: *“Elkarrizketa zibilaren printzipioari jarraiki, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakunde eta sareek, eta horien bitartez esku-hartze sozialaren hartzaile eta protagonista diren pertsona, familia, kolektibo eta komunitateek, eskubidea izango dute ukitzen dituzten politika publikoetan parte hartzeko, politika publiko horien edozein fasetan, egikaritze-fasea barne, betiere lege honetan eta sistema bakoitza erregulatzen duen araudian jasotako baldintzei jarraiki, kaltetu gabe hala ere erakunde bakoitzaren gobernu-organoei dagozkien erabaki-gaitasunak”*.

Parte-hartze hori bermatu behar zaie, beraz, kolektiboak ordezkatzeko dituzten erakundeek, desgaitasuna duten eta pertsonak beraien osatzen dituzten erakundeek, gizartea eraldatzeko gaitasuna egiaztatuta baitute; eta ez hainbeste zerbitzuak kudeatzen dituzten erakundeek edo enplegu babestuko enpresei (patronalak). Aitzitik, sortu diren partaidetza-espazioetan erakunde horiek bakarrik parte hartu dute, zerbitzu-kudeatzaile edo enplegatzaile gisa duten rolean oinarrituta.

Gobernantza defizitario horrek eragotzi egin du desgaitasuna duten pertsonen beharrei hobeto eta egokiago erantzuteko neurriak hartzea, hain zuzen ere erakunde horiek zuzenean ezagutzen dituztelako ordezkatzeko duten kolektiboaren egoera eta beharrak.

ELKARTEAN-EK ESKATZEN DITUEN NEURRIAK

desgaitasun fisikoa duten pertsonen erantzun egokia bermatzeko “normaltasun berrian” eta COVID-19ak eragindako krisialdi sozial eta ekonomikoari aurre egiterakoan:

1. NEURRIA

BIZIMODU INDEPENDENTEAREN EREDUA

eta inplikaturako administrazio publiko guztien konpromiso irmoa, gure kolektiboko kideok NON, NOLA ETA NOREKIN BIZI nahi dugun erabakitzeo daukagun eskubidea ziurtatzeko, gainerako pertsonen baldintza berberetan, bizi-sistema espezifiko baten arabera bizitzera derrigortuak izan gabe, gizarte erabat inklusibo eta irisgarri batean, beharrezko baliabide eta laguntza egokiak, isolamendua edo komunitate-tik bereiztea ekidingo dutenak eta gure parte-hartze aktiboa bermatzeko dutenak. Horretarako, beharrezkoa da:

- **LAGUNTZA PERTSONALA BERMATZEA**, bizimodu independentea garatzea eta komunitatean parte hartzea bermatzeko duen prestazio ekonomiko batekin, laguntzaile pertsonalen poltsa eta baliabide publikoa, haien kontratazioa errazteko, titulazio-baldintzak malgutzeko eta laguntzaileak kontratatzeo, aukera askea bermatzeko, bai eta zerbitzu eta prestazio guztiekin bateragarri izatea desinstituzionalizazio-ibilbideak ahalbidetzeko.

- **EGOITZA ARRETAREN EREDUA ALDATZEA**, gizarte-zerbitzuen euskal sistemako zerbitzu eta prestazioen eskaintza zabala, askotarikoa eta malgua ziurtatuz, bizimodu independentea eta desinstituzionalizazioa bultzatzeko. Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak arautzeko dekretua egitea eta onartzea, bizimodu independentearen ereduarekin bat datorren ikuspegia kontuan hartuta.
- **FAMILIARTEKO ZAINTZA DUINTZEA**, eta aintzatespen instituzionala eta soziala ematea, familia giroan zaintzeko prestazio ekonomikoa bezalako prestazioak jasotzeko oztupoak kenduz eta gizarte-babeseko sistemen estaldura handituz.
- **ETXEBIZITZA DUINA, EGOKIA ETA IRISGARRIA**, hori bermatzeko duten neurri eta laguntza publikoak bultzatuz, eta aktiboki inplikatuz jabetza horizontaleko irisgarritasun-baldintzen eskakizunean, mugikortasun urriko pertsonak nahitaez isolatzea eta konfinatzea saihesteko.
- **BEHAR BESTEKO DIRU SARRERAK BERMATZEA**, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren eta Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren osagarritasun egokia garatuz, beste edozein zerbitzuekin (baita egoitza-zerbitzuekin ere), prestazio ekonomikoarekin edo pentsioarekin bateragarritasuna bermatzeko, horrela, desgaitasuna duten pertsonen inklusio eta bizitza independenteko ibilbide eraginkorrak egin ahal izan ditzaten, desgaitasunaren gainkostua kontuan hartuta.

2. NEURRIA

IRISGARRITASUN UNIBERTSALERAKO baldintza eraginkorrek bermatzea, eta bermatzea desgaitasuna duten pertsonen eskubidea izatea INGURUNE, PROZESU, ONDASUN, PRODUKTU ETA ZERBITZU GUZTIAK, bai eta objektu, tresna, erreminta eta gailu guztiak ere, ulergarriak, erabilgarriak eta baliagarriak izan daitezen pertsona guztientzat, segurtasun- eta erosotasun-baldintzetan eta ahalik eta modurik autonomoenean eta naturalenean.

- **IRISGARRITASUNAREN EUSKAL ESTRATEGIA BURUTZEA**, arlo guztietan (espazio publikoak, garraioa, eraikuntza, hezkuntza, osasuna, aisialdia, kultura, kirola, etab.) hedatzeko jarduera erabakigarriekin eta aurrekontu-zuzkidurarekin. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako sail guztien, aldundien eta udalen zeharkako konpromisoa bultzatuko da, eta estrategia aplikatu eta bete behar duten eragile guztiak inplikatu dira (arkitekturako, ingeniartzako, urbanizazioko eta diseinuko profesionalak; epaitzako eta fiskaltzako profesionalak, udaleko teknikariak...).
- **ARRAZOIZKO EGOKITZAPENEN KONTZEPTUA MODU BATERATUAN APLIKATZEA EREMU GUZTIETAN**, Konbentzioaren baldintzak kontuan hartuta, irisgarritasuna bermatuz, ezinbesteko baldintza baita eskubideak baliatzeko, eta haren aplikazio indiskriminatua eta orokorra kenduz, ez betetzeko aitzakiazat erabil ez dadin. Kontzeptu hori kasu jakin batzuetan bakarrik aplikatu daiteke, kasu horie-

tan banakako beharrezanek egokitzapen zehatzak behar dituztenean, eta, betiere, ez onartzeak eraginpeko pertsona bakoitzarentzat dituen ondorio diskriminatzaileak kontuan hartuta beste irizpide batzuen gainetik.

ENPLEGU ARRUNTA

lortu eta enpleguari eusten zaiola bermatzea, desgaitasuna duten pertsonen gainerako pertsonen baldintza berberetan LAN EGITEKO duten eskubidea ziurtatuz. Horren barruan sartzen da askatasunez aukeratu edo onartutako lanaren bidez bizimodua ateratzeko aukera izateko eskubidea, lan-merkatu eta lan-inguru IREKI, INKLUSIBO ETA IRISGARRIAN. Horretarako, egungo krisialdi sozial eta ekonomikoak desgaitasuna duten pertsonengan daukan eragin berezia ikusita, lehentasunezkoa da Konbentzioaren 27. artikulua bete-tzearen eta 2020ko ENPLEGUAREN EUSKAL ESTRATEGIAREN alde egitea modu erabakigarrian. Hain zuzen ere, “Desgaitasuna duten pertsonen jarduera-tasa eta enplegu arrunterako sarbidea hobetzeaz” hitz egiten du Enpleguaren Euskal Estrategiak (D-3 ardatza). Horretarako, ezinbestekoa da neurri hauek hartzea:

- Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta enplegu zentro berezien Euskal Erregistroa arautzen dituen urriaren 29ko 168/2019 Dekretuan jasotako enplegu babestuari laguntzeko neurriak parekatzea enpresa arruntentzat (neurri berdinak eta zenbateko berdinak), baldin eta

3. NEURRIA

desgaitasuna duten pertsonen enplegua kontratatu eta kontratatuta edukitzen badituzte .

- Berriazko arau-garapena egitea, irizpide argiak ezartzeko desgaitasuna duten pertsonen lanpostuei eusteak lehentasuna izan dezan aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteetan, enplegu-erregulazioko espediente bihurtzen direnean edo edozein arrazoiengatik kontratuak azkentzen direnean.

Langileen Estatutuak ezartzen duenaren arabera, kontsultaldian langileen ordezkariekin lortutako hitzarmen kolektiboaren edo akordioaren bidez, desgaitasuna duten pertsonen lanpostuan jarraitzeko lehentasuna ezarri ahal izango da. Aplikatu beharreko irizpideak bateratuko dituen arau-garapen bati ekin beharko litzaioke, Estatutua garatzeko eta Konbentzioaren eta 1/2013 ELDren 27. artikulua betetzeko.

- Araudi espezifikoak garatzea desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-kuotaren aplikazioa zabaltzeko 50 langile baino gutxiagoko enpresetara eta kooperatibetara (gehienak Euskadiko enpresa-sarekoak), eta laguntza espezifikoak ezartzea desgaitasunen bat duten pertsonen enplegu autonomia eta ekintzazailtza bultzatzeko.
- Enplegu publikora desgaitasuna duten pertsonen sarbidea ziurtatzea, ekintza positiboko neurriekin eta baldintza espezifikoekin lanpostu eta fase guztietan (enplegu-poltsa, sartzeko probak, enpleguari eustea eta mailaz igotzea), bai funtzionarioentzako, bai lan-kontratuko lan-

gileentzako. Gaitasuna egiaztatzeari buruzko diskriminazio-eskakizun oro ezabatzea, eta desgaitasuna duten pertsonen enplegu publikoa eskuratzeko gordetako deialdi espezifikoak ezabatzea, deialdi orokorretan aukera-berdintasunaren printzipioa aplikatuz.

- Desgaitasuna duten pertsonen lan-orientazioaren kudeaketa publikoa bermatzea, gainerako biztanleei bezalaxe, eta, horretarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari baliabide nahikoak eta egokiak ematea.
- Lanpostuak egokitzen laguntzea eta berrikuntza teknologikoa bultzatzea, desgaitasuna duten pertsona guztien enplegua bultzatzeko.

HEZKUNTZA INKLUSI-

BOA bermatzea, desgaitasuna duten pertsonen HEZKUNTZA ESKAINTZA ETA HEZKUNTZA IN-
GURUNE erabat INKLUSIBOA ETA ES-
KURAGARRIA izateko duten eskubidea bermatuz, irakaskuntza-maila guztietan eta jarduera guztietan: eskolakoak, eskolaz kanpokoak, aisialdikoak, irteerak, jantoki-zerbitzuak, eskola-garraioa, etab.

- Desgaitasuna duen pertsona bakoitzak bere ikaskuntza garatzeko behar dituen laguntza, hezkuntza-sendogari eta banakako egokitzapen guztiak ziurtatzea, bere helburuak eta itxaropenak gainerako pertsonen aukera berdinekin burutu ditzan.
- Desgaitasuna duten pertsonen hezkuntzaren digitalizatorako sarbidea ziurtatzea, baliabide teknologikoetan beharrezkoak diren ba-


4.
NEURRIA

nakako egokitzapenekin eta haien-
tzako gainkosturik gabe. Ikasgele-
tara itzultzean, desgaitasuna duten
haurren hezkuntzarako eskubidea
bermatzea, gainerako ikasleen bal-
dintza berberetan. Desgaitasuna du-
ten ikasleak ezin dira hezkuntza-sis-
tema orokorretik kanpo geratu des-
gaitasuna dela eta, eta behar diren
arrazoizko egokitzapenak egin behar
dira banakako beharrezanen arabera.
Halaber, eskola-jardueraren jarrai-
pena on line egiteko behar dituzten
baliabide teknologiko egokitueterako
sarbidea bermatzea.

- Pertsona bakoitzaren nortasuna, ahalmena eta gaitasunak ahalik eta gehien garatzen lagunduko duen orientazio egokia bermatzea, banakako beharrei eta etorkizuneko itxaropenei erantzunez, enplegu babestuko aukera, espazio edo ibilbide bereizle eta ez-inklusiboetarako orientabide espezifiko diskriminatzailerik gabe.
- Hezkuntza-eskaintzaren eta lan-garapenaren arteko lotura bermatzea, desgaitasuna duten pertsonentzako prestakuntza-ingurune ireki, inklusibo eta irisgarrietan. Bereziki Lanbide Heziketaren esparruan, enpresa arruntetan praktikak egitea ziurtatuz.
- Ikastetxeetan, edozein hezkuntza-mailatan, irisgarritasun-baldintza guztiak bermatzea, bai eta enpresa arruntetako lanpostuak egokitzeko behar diren laguntzak ere, Lanbide Heziketan praktikak egiteko.
- Beka- eta laguntza-sistema bat ziurtatzea, desgaitasunaren gainkostua eta pertsonen aukera askea kontuan hartuko dituen.

Desgaitasuna duten emakumeei **GIZONEN ESKUBIDE BERBERAK IZATEKO ETA GAUZATZEKO** eskubidea bermatzea, hainbat faktore elkartzeak eragiten dizkien askotariko diskriminazio-moduak gaindituz. Horretarako, beharrezkoa da bi ikuspegietatik zeharka jorratzea, genero-ikuspegia desgaitasun-politiketan txertatuz eta desgaitasuna genero-politiketan txertatuz.

- Interseksionalitatearen printzipioa oinarritzat hartuta, genero-ikuspegia eta desgaitasuna sartzea politika, jarduketa eta neurri guztietan, desgaitasuna duten emakumeek eta neskek beren eskubide guztiak eskura izan eta balia ditzaten ziurtatuz, ekintza positiboko neurriekin eta aukera berdinekin eremu guztietan: bizimodu independentea, enplegua, irisgarritasun unibertsala, hirigintza-plangintza, osasuna, prestakuntza, hezkuntza, aisialdia, kultura, kirola, gizarte-zerbitzuak eta sexu- eta ugalketa-eskubideak.
- Indarkeriaren biktimen diren emakumeen prebentzio, arreta eta babeserako politiketan, desgaitasuna duten emakumeen errealitate berezia eta premiak aintzat hartzea, jasan behar izaten dituzten era askotako indarkeria-motak eta erasotzaile anitzak kontuan hartuta. Informazioa ematea eta egoera horien aurka babesteko baliabide eta neurri guztiei buruzko informazioa ematea eta horiek lortzeko aukera ematea.



6. NEURRIA

Desgaitasuna duten pertsoneri ahalik eta **OSASUN**-mailarik altuena izateko eskubidea bermatzea, desgaitasun-arrazoien-gatik DISKRIMINAZIORIK gabe, osasun-arreta egokia, onargarria, eskuragarria, kalitatezkoa eta behar bezalakoa izango dugula bermatuz.

- Desgaitasuna duten pertsonen Osasun Sistemako prestazio, proba diagnostiko eta tratamendu guztietarako sarbidea izango dutela ziurtatzea, diskriminaziorik gabe eta gainerako herritarren baldintza berberetan.
- Osasun-zerbitzuek irizpide gardenak dituzten protokolo argiak izango dituztela bermatzea, pertsona bakoitzaren duintasuna eta balioa lehentasiko dutenak, beste edozein ezaugarriren gainetik. Bereziki, laguntzaren lehenetsia zehazteko gizarte-onurako edo gaitzaren beste edozein irizpideren aurrean, diskriminazioa eragin badezake desgaitasunagatik, adinagatik, osasun-baldintzagatik edo gaixotasun edo patologia kronikoengatik.
- Irisgarritasun-baldintzak ziurtatzea sarbidean, arretan, tratamenduetan, azpiegituretan, gailuetan, proba mediko eta diagnostikoetan eta abarretan, osasun-arretako zentro eta maila guztietan (lehen mailakoa, ospitalekoa, larrialdietakoa...). Bereziki, Arartekoak "EAEko ospitaleek ezgaituentzat duten irisgarritasunaren diagnostikoa" izenekoan identifikatutako gabeziak eta zailtasunak aztertuko dira, baina baita beste zentro, gailu eta gune batzuetan identifikatutakoak ere.
- Laguntza-produktuen, laguntza teknikoaren eta material ortoprosikoaren eskaintza hobetzea (kata-

logo ortoprosikoa), horiek zabaldu, dibertsifikatu eta pertsonalizatu ahal izateko berrikuntza teknologikoak txertatuz. Laguntzen zenbatekoak handitzea, desgaitasunaren gaitzaren kontuan hartuta, eta Estatuko araudiaren elementuak barne hartzea (SCB/45/2019 Agindua), Euskadin jada lortutako bermeak eta lorpenak hobetzeko.

- Gizarte-zerbitzuen sistemarekin koordinazio egokia ziurtatzea, "eremu soziosanitarioa" modu eraginkorren garatzeko eta kronikotasun-egoerei erantzuteko, errehabilitazio-zerbitzuetan erantzun zehatzak emanez, ospitaleetako alden ondoren baliabide egokiak erabiliz, besteak beste.

ORO HAR, AURREKO EREMU GUZTIETAN:

- Krisialdiaren eragina ezagutzeko, beharrak antzemateko eta arlo guztietan (gizarte-zerbitzuak, osasuna, enplegua, hezkuntza, ekonomia suspertzea, etab.) jarduketak eta erantzunak planifikatzeko egiten diren azterlan, analisi, estatistika eta txosten guztietan desgaitasuna duten pertsonak txertatzea. Aldagai horietan bereizitako datuak izanda bakarrik eskura daiteke desgaitasun fisikoaren duten biztanleen benetako beharrak eta haien eskubideen urraketak ezagutzeko behar den informazioa, erantzun egokiak planifikatu eta inplementatu ahal izateko.
- Desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzen dituzten Hirugarren Sektore Sozialeko erakundearen parte-

7. NEURRIA

hartze osoa eta eraginkorra bermatzea Covid-19ak eragindako krisialdi sanitario eta sozialaren esparruan hartutako neurrien diseinuan eta jarraipenean. Era berean, elkarrizketa zibilaren eremu horretan bertan, funtsezkoa da elkarrekin lan egitea pandemiaren aurka jarduteko hurrengo faseetan hartu behar diren neurrien oinarriak ezartzeko, bai eta desgaitasuna duten pertsonak krisialdi ekonomikoaren ondorioz bereziki kaltetutako kolektibo bihur ez daitezen bermatzeko ere.

- Zaintza-eredua eta desgaitasuna duten pertsonekin esku hartzeko eredua modu erabakigarrian aldatzea, arreta integral eta koordinatuan oinarrituta, baliabideak pertsona bakoitzera egokituta eta ez alderantziz, kolektiboan araberako arreta-eredutik aldenuz eta bizimodu independentea eta komunitate-inklusioa bermatzearen aldeko apustua eginez.
- Orain arte inklusioan eta berdintasunean lortutako aurrerapenetan atzera

ez egitea; horrela, pertsonen arteko urruntze fisikoa guztion osasuna babesteko neurritzat hartuko dugu, baina ez desgaitasuna duten pertsonen urruntzea eta gizarte-isolamendua babesteko neurritzat.

Laburbilduz, krisialdi honek erakutsi du beharrezkoa dela desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasuna bermatzeko funtsezkoak diren esparruak eraldatzea, hala nola, arreta-eredua, irisgarritasun unibertsala, hezkuntza inklusiboa, enplegu arrunta edo bizimodu independentea.

ELKARTEANen, Euskadiko desgaitasun fisikoa duten pertsonen ordezkariz garen aldetik, adi gaude egoerak izan duen bilakaerari, eskubideetan izandako urraketak edo atzerapausoak salatzen, erakundeei beharizan jakinarazteko eta gure proposamenekin krisialdi sanitario, sozial eta ekonomiko hau gainditzeko, betiere Konbentzioan aintzatetsitako eskubide guztiak bermatuz.

